



Bezeroekin harremana iragarkien bidez indartuko dugu. Eguneroko bizitza egin ahala, bezeroek, gure iragarkiak ikusi eta entzungo dituzte garraio publikoan, irratan, Interneten... .



- Bizkaibuseko autobusaren eta gure zerbitzura dauden autobusen kanpoaldean iragarkiak jarriko ditugu, baita autobuseko geltokietan ere.
- Gure bulego nagusia egongo den herrian, Ondarroan, kale guztietan zehar publizitate-kartelak jarriko ditugu. Horretaz gain, gure inguruko herrietan ere kartelak itsatsiko ditugu, bertan baitaude Ondarroara gure zerbitzura ekartzen dituzten bezeroak biltzeko gunek geltokietan.



- Irratiko komunikazioa oso garrantzitsua da enpresaren izena ezagutzeko. Euskal Herriko irrati kate ezagunetariko batean (Gaztea) ere gure enpresaren ideia jarriko ditugu. Irrati ezaguna denez, Euskal Herri osoan zehar zabaltzeko aukera izango genuke. Horrela adin guztietako jendea erakarriko genuke, izan ere, Gaztea irratan gaur egungo abestiak entzuten dira eta era berean, Euskal Herriko albisteak ere bai.



- Baina, batez ere, sare-sozialen bidez zabalduko dugu enpresaren izena. Gaur egun, enpresa gehienak sare sozialen bidez zabaltzen dira eta guk ere ideia bera dugu. Sare-sozial ezagunenetan sartuko ginateke: Instagram, Twitter, Facebook, Whatsapp... Horrela, batez ere, jende gaztearen interesa erakarriko genuke eta era berean, jende nagusiagoarena ere.



- Youtube-ko kanal bat ere prestatuko eta antolatuko dugu. Astero 5-15 minutu bitarteko bideo bat igoko dugu. Bideoan gure zer bezeroek bizi dituzten "egun ondarrutarren" zatiak grabatuko ditugu. Horrela, internautek esperientzia nolakoa den ikusiko dute haien etxeetatik mugitu gabe. Neurri honi esker, bezeroak engainuaren aurka prebenitzen ditugu, espero dutena jasoko baitute gure zerbitzua kontratatuz gero.